

Gasteizen, 2022ko irailaren 8an.

Familia agurgarriak:

Ohar honen bidez Ikastolako irakasle eta langileok 2022-2023 ikasturterako ongi etorria eman eta, bide batez, zenbait kontu gogorarazi nahi dizuegu:

1.- Honekin batera doakizue ikasturte honetako egutegia.

2.- Ikastolarekin kontaktatzeko bideak hauek dira:

Pedro Ignacio Barrutia Ikastola Espoz y Mina kalea, z/g. 01010 GASTEIZ	Lehen Hezkuntzako eraikineko telefonoa: 945 17 21 31 Haur Hezkuntzako eraikineko telefonoa: 945 17 67 10 Helbide elektronikoa: 010142aa@hezkuntza.net Webgunearen helbidea: https://www.barrutia.eus/
---	---

3.- Idazkaritza ordutegia 9:00etatik 13:00etara da. Beka garaian eta matrikula garaian ordutegia berezia izango da eta garaiz jakinaraziko da.

4.- Ikasleen ordutegia hau da ikasturte honetan (irailaren 19tik Aurrera. 2 eta 3 urtekoak egokitzapenaren ondoren): 9:30 – 13:00 / 15:00 /17:00

Asteazken arratsaldetan ez dago eskolarik (beraz, asteazkenetan, jantokiko ikasleak 14:30ak baino lehenago jaso behar dituzue).

5.- Ezinbestekoa da eskolan sartzeko orduak puntualtasunez errespetatzea, eta hutsegiteak justifikatu egin behar dira derrigorrez.

6.- Gurasoen edota legezko tutoreen ardura da seme-alaben zaintza patioko atea irekitzen direnetik ikasleak eraikinean sartzeko diren arteko denboran -hala goizean, nola eguerdian-. Halaber, ikasleak guraso edota legezko tutoreen ardurapean daude behin eskolak bukatuta -bai eguerdian, bai arratsaldean- hesiko atea itxi arteko denboran.

7.- Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasleak etxera bakarrik joan ahal izateko guraso edota tutoreek baimena sinatu beharko duzue. Txikiagoek ezin izango dute bakarrik joan etxera. Txikiak adingabeko norbaitek eraman ahal izateko ere, guraso edota tutoreek baimena sinatu beharko duzue (eta adingabeko horrek 16 urtetik gorakoa izan beharko du).

8.- Zuen seme-alabaren osasunagatik eta ikaskideenagatik, ezin dituzue umeak gaixorik ekarri Ikastolara.

9.- Jantoki-zerbitzua erabili nahi baduzue, jantokiko arduradunarekin edo idazkaritzarekin jarri behar zarete harremanetan. Jantokia erabili ahal izateko, ezinbestekoa da Jantokiko Araudia onartu eta betetzea.

10.- Izan gogoan ordainketaren bat egin gabe baldin baduzue (edozein motakoa dela ere), ezin izango duzuela jantoki zerbitzua erabili.

11.- Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005 Legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun- -egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinaraziko die gizarte-zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari.

12.- Eskolaz kanpoko jarduerak antolatzeaz Guraso Elkarteak arduratzen da. Hau duzue harremanetarako telefono zenbakia: 658356547. Eta posta helbidea: barrutiagurasoak@gmail.com

13.- Datozen egun edo asteetan banatuko dizuegu beste zenbait ohar gela-bilerak noiz izango diren zehazteko, material eta jarduera osagarriak ordaintzeko kuotak noiz eta nola ordaindu behar diren azaltzeko, eta abar.

14.-Ikasturte honetan COVID-19-a dela eta bertan behera gelditu dira neurri guztiak. Baina autobusa erabiltzen denean musukoa derrigorrezkoa izango da.

Besterik gabe, adeitasunez



Gasteiz, 8 de septiembre de 2022.

Estimadas familias:

Mediante esta nota l@s profesoras-es y trabajadoras-es de la Ikastola queremos daros la bienvenida al curso 2022-2023. Asimismo, queremos recordaros ciertos aspectos importantes:

- 1.- Adjuntamos a esta nota el calendario escolar para este curso.
- 2.- Para poneros en contacto con la Ikastola:

Pedro Ignacio Barrutia Ikastola Espoz y Mina kalea, z/g. 01010 GASTEIZ	Teléfono del edificio de Ed. Primaria: 945 17 21 31 Teléfono del edificio de Ed. Infantil: 945 17 67 10 Correo electrónico: 010142aa@hezkuntza.net Dirección del blog: https://www.barrutia.eus/
---	---

3.- El horario de atención al público de secretaría es de 9:00 a 13:00. En periodos de becas y matrículas el horario será distinto y se informará de los mismos con antelación.

4.- El horario escolar para el alumnado es el siguiente (a partir del 19 de septiembre. L@s de 2 y 3 años según su periodo de adaptación): 9:30 – 13:00 / 15:00 – 17:00

Los miércoles por la tarde no hay clase (por lo tanto, los miércoles, hay que recoger a l@s alumn@s del comedor antes de las 14:30).

5.- Es obligatorio respetar las horas de entrada en clase con rigurosa puntualidad y justificar las faltas de asistencia.

6.- Es responsabilidad de l@s madres/padres o tutoras/es la vigilancia de l@s alumn@s en el tiempo entre la apertura de las puertas de la verja y la entrada de l@s alumn@s en el edificio -tanto por la mañana, como al mediodía-. Asimismo, l@s alumna@s quedan bajo la responsabilidad de l@s madres/padres o tutoras/es legales una vez finalizadas las clases -tanto al mediodía, como a la tarde- hasta que se cierren las puertas de la verja.

7.- Para que l@s alumn@s de 4º, 5º y 6º de Primaria puedan salir del centro sol@s, l@s madres/padres o tutoras/es legales tendrán que firmar una autorización. L@s niñ@s menores de esa edad no pueden salir sol@s del centro. Para que est@s salgan acompañados por un/a menor también será necesario que se firme una autorización (y este menor tendrá que ser mayor de 16 años).

8.- Por la salud de vuest@r@s hij@s y la de sus compañer@s, no podéis traer a l@s niñ@s enferm@s a la Ikastola.

9.- Si queréis hacer uso del servicio de comedor, tenéis que hablar con la/el responsable del comedor o con secretaría. Para poder utilizar el comedor es imprescindible aceptar y cumplir el reglamento del comedor en su totalidad.



10.- Tened en cuenta que no se podrá hacer uso del servicio de comedor en caso de tener pendiente algún pago de cualquier tipo.

11.- En virtud de la "Ley Vasca 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y Protección a la Infancia y adolescencia", los centros escolares tienen la obligación legal de notificar a los Servicios Sociales cualquier situación en la que entiendan pudiera existir indicios de desprotección infantil de cualquiera de sus alumnas o alumnos, es decir dejación de sus funciones por parte de sus cuidadoras o cuidadores. Si se realizara tal notificación la familia de la alumna o alumno concernida/o será informada de la existencia de la misma.

12.- Las actividades extraescolares las organiza la Asociación de Madres y Padres. Su número de teléfono es el 658356547, y la dirección de correo es barrutiagurasoak@gmail.com.

13.- Próximamente recibiréis otras comunicaciones en las que se concretarán las fechas de las reuniones de nivel, la forma de pago de la cuota por material y actividades complementarias, etc.

14.- En este curso se han suspendido todas las medidas con motivo de la COVID-19. Pero cuando se utilice el autobús será obligatorio el uso de la mascarilla.

Sin más, atentamente

